

Paul Bilbao: “Ez da oraindik erabaki irmorik hartu ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen eredu bat abian jartzeko”

Bigarren urtez EAEn deialdia egin dute ikastetxe publikoak marko hirueledun proiektuetan sar daitezzen.

Kontseiluak argi du derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan gure ikasleek euskaldun eleaniztunak izan behar dutela, eta horren karira proposamen zehatza aurkeztu zuen 2008an. Aipatu proposamena Kontseiluan hezkuntzaren eremua osatzen duten bazkideek jorratu zuten eta horien guztien eskarmentua hartu zen kontuan, hain zuzen ere, Euskal Herriko Ikastolak, Sortzen-Ikasbatuaz, EHIGE, Kristau Eskolak eta Hik Hasi.

Proposamen horretara iristeko ele biko ikastereduen azterketaren barruan ekarpena bideratu zuen Kontseiluak honako azterketa hauek burutuz: juridiko-legala, soziolinguistikoa, psikolinguistikoa eta glotodidaktikoa eta operatiboa.

“Finean, Kontseiluaren proposamen nagusia ikasle euskaldun eleaniztunak sortzea eta ikastetxe guztietan hori berrmatuko duen eredu bat abian jartzea da. Horretarako nahitaezkoa da legea bera lehenbailehen aldatzea”, Paul Bilbao, Kontseiluko idazkari nagusiaren esanetan.

Azken urteotan hainbat ikastetxetan garatu dira ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proiektuak eta horietan guztietan oinarrituz egin zuen Kontseiluak bere proposamena. “Hortaz, esperimentazioak alde batera utzi, eta EAeko ikastetxeetan Kontseiluak egindako ekarpena ahalik eta lasterren inplementatzeko egiturazko aldaketan aldeko apustua egiteko eskatu nahi dugu”, esan du Bilbao.

“Jakin dakigu ikasle euskaldun eleaniztunak sortzetik hurbilen dagoen eredu bat D eredu bat dela, hain zuzen ere, etxetik euskara dakartenentzat mantentze-eredu bat dena, eta, ez dakartenentzat, murgiltze-eredu bat dena”. Horrexegatik, Kontseilua eredu horretatik abiatu zen proposamena prestatzeko.

Kontseiluaren iritziz, murgiltze-sistema bat abiapuntu bakarra ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko, eta sistema hori hobetzeko proposamenak egin zituzten Kontseiluko bazkideek, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Gainera, kontuan hartu behar da gurasoek aukeratu behar izan dutenean, D ereduaren aldeko hautua egin dutela. EAeko aurrematrikulazio datuak aipatu ditu Bilbao zentzu horretan. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aurrematrikulaziotik 2 urteko ikasle berrien artean, %75,23k egin dute euskaraz ikasteari alde. 2010eko datuekin alderatuta, bi puntu gehiago.

“Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko badira egin beharreko aldaketak: ebaluazioak, hizkuntza-proiektua aberastea, taldearen osaerari buruzko hausnarketa, irakasleen prestakuntza, Hizkuntza Normalizazio Planaren ezaugarrietan sakontzea... Horiek guztiak jasotzen ditu Kontseiluaren proposamenak, eta gure ustez horietan guztietan jarri behar dugu indarra ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko baditugu”, Bilbaoren hitzetan.

ISEIren ikasleen euskara-gaitasun mailaren inguruko emaitzak (2004) ere aipatu ditu Kontseiluko idazkari nagusiak. “Denbora pasa da ISEIk ikasleen euskara-gaitasun mailaren inguruko emaitzak argitaratu zituenetik, eta elementu kezkarri asko ondorioztatu ziren. Horrek ekarri zuen, neurri batean, egun indarrean dauden ereduaren inguruko eztabaida sustatzea. Halaber, testuinguru horretan jarri nahi izan zuen Kontseiluak mahai gainean ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamena”.

Urteak igaro dira ordutik, eta “ez da ez lehen, ez eta orain ere, erabaki irmorik hartu ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen hezkuntza sistamarantz jotzeko. Hizkuntzen berreskurapen-prozesuan belaunaldi berriak hizkuntza gutxiagotua jakitea oinarritzko zutabea da. Ekin diezaiozun, beraz, etorkizuneko gazteak euskaldun eleanitzak izateko bideari”, azaldu du Bilbaok.

Andoainen, 2011ko apirilaren 14an